

Hitza

Esanahia

afera	asuntoa, gorabehera
agendu	zutitu, goititu
aiene-melodia	kexuzko doinua, arrangurazkoa
aje	ostea, mozkorraldi ondorioa
akastun	erratua, zuzena ez dena
akolito	apaizaren laguntzailea
alferrik galduta egon	erremediorik ez eduki
amildu	erori, jausi
anker	krudel, bihozgabe
apetatsu	kasketaldiak dituen, aldakorra
apika	agian, beharbada, ausaz
asaldatu	ikaratu bezala, sustoa hartu
ase	bete, lasaitu
askoa	nahikoa, xamarra
atabiko	arkaikoa
atoan	berehala
aura	argitasun uztaia
bailitzan	balitz bezala
barre karkara	barre zantzoa, algara
barrenkor	sakonekoa
bederen	behintzat, behinik behin
bere baitarako	bere kolkorako, bere kautan
bere kolkorako	bere barrurako, bere kautan
berrespen	konfirmazioa
berretsi	baietsi, konfirmatu

Hitza	Esanahia
betiereko	eternoia
bidenabar	bide batez, aldi berean
bidezidor	atajoa, bidexka
bihozkada	zerbaiten susmoa, sentimendua
churrigueresco	barrokoa, horniduraz beteegia
deliberatu	erabaki, ziurtasunez baieztatu
desenkusatu	bere burua zuritu
dexente	ugari, asko
di-da batean	berehala, arin baten
duineza	errespetu falta
egoskorkeria	temati jartzea, burugogor
ekidinezin	saihestezina, inebitablea
eldarnio-hazi	sukar-zorabioa, haluzinazioa
enbata	itsas ekaitza
eragozpen	traba, gorabehera
eraitsi	bota
erdeinu	mespretxua, gutxiespena
erdia pasa	erdia baino gehitxoago
erein	eragin, sorrarazi
erraiak	barruak, hesteak
erronkari	desafiozkoa, adierazgarria
esatear egon	esatekotan, esateko puntuan
esbastika	nazien gurutzea
eskerga	handi-handia, erraldoia
espartano	soila, justu-justuko gauzekin

Hitza	Esanahia
ezgauza	inutila, balio ez duena
fardel	(zakutotxoa) /
fin aritu	saiatua, gogoz
galbahe	bahea, garia iragazteko tresna
galgatu	frenatu, gelditu
ganbara	burua
gandutu	lainotua, nahastua
gardostua	azala edo kanpoaldea erreta
girlanda	lore koroa (?)
gloria mundi	munduko loria
gorraize	gortasun arina
hara	begitu, kontxo
haraindiko	haragoko, urruneko
harilkatu	haria bildu
harmagedon	apokalipsia, suntsipena
hauskor	apurkorra, fragila
hauteman	igarri
hein batean	neurri batean'
herrestan	arrastaka, tarraz, tatarrez, narraz
higatu	itxura eskasekoa, zaharkitua
hira	haserrea
hurko	norberaren hurrengoa (prójimo)
in crescendo	haziaz, gero eta gehiago
irrikatu	gogo handiz desiratu
iseka egin	trufatu, burla egin

Hitza	Esanahia
itsumustuko	bat-batekoa, ustekabekoa
itu	diana, jo-puntua
itzarrita	esna, itzarrik
janari-orban	janari mantxa
jelatu	izoztu
kale itsu	irteera bakoa
kankailu	gizaki handia eta dorpea
katigatu	printzatuta, atxikita
kliska	begien itxi-irekia
konturatzerako	konturatu orduko, baino lehen
lakar	latza, leuntasunik ez duena
lanean	saiatua, fina
lardaskatu	maluskatu, mordoilatu, aldrebestu
laudagarri	txalogarria
lausotua	difuminatua, garbi ez ikusteko eran
lepoa egin	apustu egin, jokatuko nuke
leviatan	munstroa
lukainka sartu	trikimailuz engainatu
malkar	harritsua, maldatsua
marmar	murmurioa, soinu isil etengabea
martiri	jazarpenez oinazez hildakoa
mataza	korapiloa, hari multzoa
mela-mela eginda	busti-bustirik, blaiturik
miatu	arakatu, ikertu
mikatz	mingotsa

Hitza	Esanahia
mirabe	zerbitzaria, otseina
mordoilo	korapiloa, mataza
morroilo	kandatua
murmurikatu	marmarka egin
nahimen	gogoa, apeta
oinordetza	heredentzia
oldarrak oldar	inpetuak bultza
onenean ez egon	unerik gozoenean
oparo	handi-handia, naroa
ostargi-belar	belar-mota
ozar	lotsagabea, mutiria
pagotxa	zortea, ustekabeko zoria
panteismo	jainkoa eta mundua bat
paranoia	eskizofrenia, delirio mota
pasieran	paseoan
patologo	mediku espezialista
patu	zoria, adurra, destinoa
perifrastikoa	itzulinguruka, zeharkakoa
petraldu	temati jartzea, okerkeriatan
petrikilo	medikua
pianissimo	oso-oso astiro, suabe, leun
preseski	bereziki
profil	soslaia, silueta
prozac	animatzeko botika
samur	erraza / gozoa

Hitza	Esanahia
sanskrito	Indiako hizkuntza zaharra
sarkasmo	ironia latz
sekuoia	zuhaitz mota: handia eta sendoa
sic transit	horrela igarotzen da
soiltasun	berezitasun, berezkotasun
soraio	nagi antzekoa, hotza, sentim. bakoa
temati	setati, behin eta berriro
tiradera	kajoia
toteltasun	hitz egiteko moteltasuna
trauskil	txukuntasunik gabea, arduragabea
triskatuta	birrinduta, zirtzilduta
turkoburu	erruduntzat jotako errugabea
txabusina	bata
tximadun	ile sorta luzea
ulu	otsoen oihua
urretxindor	txori kantaria, gauez
xixkalari	lapur txikia, ratero
xixko eginda geratu	sats eginda, pot eginda
xuxurla	ahapeka, hizketa isila
zapuztu	gaizki atera,
zer gerta ere	badaezpada
zertu	gauzatu, egin
zirkinik egin ez	mugimendurik txikiena ere ez
ziztakari	sarkorra, eztenkaria
ziztuan	arrapaladan, atoan

Hitza

Esanahia

zoli

nabarmena

zorabio

bat-bateko makalaldia

zundatu

arakatu, ikertu

zurrun

gogortua, tentsoa

zurtu

inpresionatu, harritu